

## 8. FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure jarduera printzipala zerbitzu bat eskaintzea herri txikiei non liburutegi eta denda moduan jardua da. Zehazki furgoneta baten bidez gaurkotasunean ditugun liburu eta film entzutetsuenak eramango ditugu Durangaldeko herri txikienetara, non liburutegiak eta kultur guneak falda diren. Era desberdinetan jakingo dugu nolako produktuak nahiko dituzten herritarrek, eta haien nahiak prestatu ondoren, liburuak nahiz diskoak alokatzeko aukera emango diegu, jakina prezio jakin baten truke. Egun bakoitzean herri batean egongo gara, 4-5 ordu igaroko ditugu bakoitzean.

Ordutegia	Orduak
Garai	Asteazken: 16:00-20:00
Mañaria	Astelehen: 16:00-20:00 Asteazken: 9:00-13:00
Otxandio	Astearte: 9:00-13:00 Ostegun: 16:00-20:00
Izurtza	Astearte: 16:00-20:00
Atxondo	Ostiral: 9:00-13:00 Larunbata: 16:00-20:00
Mallabia	Ostiral: 16:00-20:00 Astelehen: 9:00-13:00
Bedia	Ostegun: 9:00-13:00 Larunbata: 9:00-13:00

Arazoak planteatzen diren unean, gure artean batu eta adostasun batera helduko gara. Horrez gain bezeroek planteatutako arazoak instagrameko mezuetatik, web-orrialdeko forutik edo dei baten bidez bidali eta argitu ahalko dira.

Modu horretan hirigunetik aldentuta dauden herrietako biztanleek inolako esfortzurik egin gabe aukera izango dute kulturaz gozatzeko. Izan ere, gure zerbitzuari esker liburuez gozatzeko aukera izango dute. Horretaz gain, beraientzako liburu bat nahi badute, erosteko aukera ere izango dute.